

GIL 16 Raneroko plataforma karbonatatuaren ertza



Peña Raneroko mendigune karstikoa, haitzaren oinean. Sakonera txikiko uretako plataforma karbonatatuaren ertza erakusten du.

Kokapena (erdigunea)

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 31.44 ''

Long.: 3° 23' 28.67''

- **UTM koordenatuak:**

X: 468.240,06 m

Y: 4.789.621,70 m



Nola iritsi

Interesgunearen neurriak kontuan hartuta, ertzari behatzeko haren ikuspegi osoaren panoramikak egin daitezkeen tokietara joan beharra dago:

1. BI-630 (Balmaseda-Karrantza) errepidean, hartu BI-4678 saihesbidea, Karrantzako Rioseco auzotik Ranerora doana. Hara iritsitakoan, hartu Pozalaguara iristen den pista asfaltatua, eta, handik, hurbildu Karrantza ibaiaren haizpitarteko ebakira.
2. BI-630 errepidean, Ambasaguasen, hartu BI-4623 errepidea, Matienzora doana. Matienzora iritsitakoan, hartu El Mazorantz igotzen den baso-pista; gure eskuinean izango da Karrantza ibaiaren haizpitartea.



Peña Raneroko mendigune karstikoa egitura geologiko handia da, eta toki askotatik ikusten da; Karrantza Haranaren irudia bereizgarri egiten du.

Deskribapena

El margen de plataforma es una macro-estructura sedimentaria que ocupa más de 1 km de largo y alcanza los 600 m de altura, siendo observable en el desfiladero que el río Plataformaren ertza makroegitura sedimentario bat da, luzeran 1 km baino gehiago duena eta 600 m-ko garaiera hartzen duena. Karrantza ibaiak Albiarreko kareharrietan ebaki duen haizpitar-tean ikus daiteke; izan ere, ibaiak 500 m inguruko lodiera duen Behe Albiarreko serie sedimentario ia horizontal bat ebakitzen du.

Raneroko plataforma-ertza Ramaleseko Albiarreko plataforma karbonatatu zabalaren ekialdeko muturra da, eta Ramaleseko plataforma, berriz, Kantabriako ekialdearen eta Bizkaiko mendebaldearen parte handi bat hartzen zuen sedimentazio-eremua. Plataforma handi horren ertzaren zenbait ebaki daude, gaur egun, Kantabriako eta Bizkaiko herri batzuetan; Ranerokoa da, baina, haren arkitektura estratigrafikoa ondoen erakusten duena. Ramaleseko plataforma karbonatatu sakonera txikiko itsas sedimentazioko eremu bat zen, eta plataforma hori bat-batean 150 m-ko sakonerara pasatzen zen tokian eratu zen ertza; alboka 1 km-ko luzera soilik zuen eta 30° inguruko itsaspeko maldak (ezponda).

Raneron oso azalaramendu onak ditu plataforma karbonatatuak, eta haren osaera estratigrafikoa ikusteko aukera ematen dute. Hala, arrapala karbonatatuaren 3 unitate gainjarri bereizten dira (2-10° baino gutxiagoko deposizio-maldak) eta gaineko unitate bat, ertza bera duena, 30° inguruko deposizio-maldak dituena. Deposizio-malda pixkanaka handitzen da lehen arrapatatik malda handiko azken fasera; azken fase horretan, oso nabarmenak dira ertzaren gailurra, ezponda eta ezponda-oina.



Ezpondaren faziesak, belakien eta orbitolinen fosilak dituenak.

Sakonera txikiko uretako barne-plataforma karbonatuetako faziesak mikritikoak dira (lohi karbonatua), eta errudistak eta koralak dituzte. Ezpondara hurbildu ahala, kareharrak gero eta bioklastikoagoak dira, eta eduki buztintsu gehiago dute; hala, ezponda-oineko fazies sakonenak kalkarenita tupatsuak dira eta orbitolinak eta belakiak dauzkate.

Bigarren mailako interesak

Raneroko plataforma karbonatatuaren ertza Raneroko mendigune karstikoaren parte da gaur egun. Maila freatikoa Albiarreko kareharrien oinean kokatzen da, gutxi gorabehera; horregatik, gaur egun, mendigune karstiko gehiena erdi-uberatsua da, eta barrunbe ugari ditu. Ranero inguruan daude barrunbe garrantzitsuenetako bi. Bata, Pozalagua haitzuloa; oso heliktita interesgarriak ditu (estalaktita eszentriko mota bat). Eta bestea, Torca del Carlista leizea; Europako barrunbe natural handienetakoa da, eta lasai asko kabituko litzateke han Bilboko Guggenheim museoa. Beste barrunbe txikiago batzuk ere oso garrantzitsuak dira giza eboluzioa eta Kuaternarioko klima-aldaketak ulertzeko: El Polvorín eta Ventalaperra, besteak beste.

Behatzeko punturik onena

Pozalaguetik bidexka bat abiatzen da haitzaren azpian dagoen begiratokiraino.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL16, GIL17, GIL18, GIL 67, GIL 107, GIL 138, GIL 144, GIL 145, GIL 146.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 14, GIL 15, GIL 16, GIL 17, GIL 18, GIL 19.



Eskuinaldean, Peña Ranero eta, ezkerrean, El Moro, La Escrita mendatetik ikusiak. Karrantza ibaiaren haranaren ebaki bereizgarria ikusten da.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Peña Raneroko mendigune karstikoa, Rianchotik ikusia.

Bibliografia espezifikoa

- López-Horgue, M. A., (2000). *El Aptiense-Albiense de Karrantza-Lanestona (Bizkaia y Cantabria)*. Argitaratu gabeko doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 264. or.
- López-Horgue, M. A., Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (2000). "Existencia de una discordancia angular con laguna del Albiense medio en el Complejo Urganiano de Ranero (Ramales-Karrantza, región vasco-cantábrica)". *Geogaceta* 28, 89-92.
- López-Horgue, M. A., Fernández-Mendiola, P. A., Iriarte, E., Sudrie, M., Caline, B., Gomez, J.P. eta Corneyllie, H. (2005) *Fault-related hydrothermal dolomite bodies in early Cretaceous platform carbonates, Karrantza area (North Spain): outcrop analogues for dolomite reservoir characterization. 10ème congrès français de sédimentologie*. Presq'île de Giens (Frantzia).
- López-Horgue, M. A., Owen, H. G., Aranburu, A., Fernández-Mendiola, P. A. eta García-Mondéjar, J. (2009). "Early late Albian (Cretaceous) of the central region of the Basque-Cantabrian Basin, northern Spain: biostratigraphy based on ammonites and orbitolinids". *Cretaceous Research*, 30, 385-400.